



Leihoak

Nire amonarekin hitz egiten dudan bakoitzean, niri ulertzea zein zaila egiten zaion ikusten dut. Aurreko batean egunero nabigatzen nuela esan nion eta nire aitona bezalakoa nintzela esan zidan



Beste batean esan nion nabigatzen ari nintzela Budapesten bizi den nire laguna agurtu nuela.

Zer uste duzue esan zidala ezagutzen EZ nuen arren oso gustukoa nuen lagun bat nuela esan nionean?


- Uste dut zoratzen hasia zarela..

Oraingoan amonak arrazoi zuen... aztoratuta nengoen, Jamesek zoro moduan erakartzen ninduen.



Amona nire zoroaldiaz kezkatuta zegoen, baina baita Nerea, eta, bereziki, Josu ere:

- Eta bikotea al dira?
- Lasai... James Stockholmen bizi da...
LAGUN BIRTUALAK DIRA



Josuk hasperen egin zuen berriro, lasaitasunez, eta gau horretan bertan mezu bat bidali zuen nire posta elektronikora

- Gauza oso garrantzitsu bat esan behar dizut. Zer den jakin nahi baduzu, bihar, eskolarantz abiatu aurretik, irten zaitetz leihora. Ondo lo egin eta amets politak izan ditzazula. Josu.



Azkenean, kuriositatea kuriositate, loak hartu ninduen eta, hurrengo egunean leihora atera nintzen.

- Munduko neskarik politena zara...

Lotsatuta zegoen, eta hunkituta ere bai, ni bezala...



- Eta Jamesekin ez al duzu zirrara bera sentitu?

- Ez, Nerea... oso desberdina da... Gauza bat nabigatzen ari zarenean leiho birtual horretatik ikusten duzun mundua da, eta beste bat, oso bestelakoa, benetako leihotik ikusten duzuna. ...
- Elena andrea eta bere bi maiteak...



Gau hartan bertan, bien mezuak aurkitu nituen neure posta elektronikoan. Lehendabizi, Josuren mezua irakurri nuen.

- Kaixo, Elena... bihar, eskolatik irtetean, pistatxoazko izozki eder bat jatera gonbidatu nahi zaitut. Onartzen al duzu?
- Ez zait pistatxoazko izozkia gustatzen, baina txokolatezkoa izugarri gustatzen zait.



Ondoren, Jamesen mezua irakurri nuen...

- Kaixo, Elena... hemen biziko bazina, parkean patinatzerara eta freskagarri bat hartzerara gonbidatuko zintuzket.
- James... Ez zaitetz gogoz geratu... zure ordenagailuko leihoa irekitzen duzun bezala, ireki zure etxeko gainerako leihoak. Ziurrenik, eguzkiareta eta brisaz gain, zurekin patinatzerako irrikaz dagoen neskato bat ere sartuko zaizu. Elena.




Gaur goizean, nire amonari lagun birtual eta erreal baten arteko desberdintasuna azaltzen saiatu naiz

- ... Lagunek, lagun izateko, gertu egon behar dute
- Interneten bidez, nabigatuz, urruti dauden pertsonengana hurbildu gaitzke; baina batzuetan gertu dauden pertsonen urruntzeko arriskua ere badago.



- Nik badakit nola kontrolatu arrisku hori. Zinera joateko hiru sarrera ditut... bat zuretzat, bestea niretzat eta hirugarrena Josurentzat... Gustatuko al litzaizuke?

- Noski, amona... eta zuri... gustatuko al litzaizuke pistatxoazko edo txokolatezko izozki bat?...



Nabigatu Hondoratu Gabe

Lan hark konplexua ematen zuen... irakasleak eskatua zigun hurrengo egunerako... 10 gako biltzeko ikasgelako gainerakoei Interneten segurtasunez nabigatzen laguntzeko... baina... nola prestatu informazio hura?



Plan bat zehazteko bildu ginen. Baina ezer ez... nola egin ez zitzaion inori bururatzen. Lortu egin behar genuen... oso garrantzitsua zen... eta aurreko gauean ikusitako espioitza-film batez gogoratu nintzen...

Orduan pentsatu nuen... filma!... Jakina!... horixe bera!!... Filma "muntatuko" genuen... filma horretan... zera... munduko ikerketa talderik ospetsuenak eginkizun zaila izango zuen betetzeko...



...horretarako pertsona bat aukeratu beharko zuten zozketaz... izan ere... soilik zorteak... erabakiko zuten nork izango zuten hainbesteko erantzukizuna bere gain hartzeko ohorea.



Gure transmisorea erabiliz... gure basera bidali behar zen jasotako informazioa, eta, era horretara, gure lorratz-zerrenda osatu.




Ziur geunden. Lortuko genuen. Gure taldeak ez du inoiz huts egiten.

Gu guztion laguntzaz lortu egin behar genuen...



HAMAR GAKOAK



Lehenengo gauza gure kontaktua aurkitzea zen, baina.... non?



- Kaixo, zure kontaktua naiz. Ongi etorri NAVEGAPOLISera. Jarraibideei segituz zure helburua lortuko duzu. Arreta jarri eta ZORTE ON!
...Ongi! Basearekiko konexioa egiten saiatuko naiz. Bilaketa hasten da.



Ez eman datu pertsonalik

Aja!... ez dut informazio pertsonala eman behar, ez nirea ez nire familiarena ere. Ez inolako izenik, helbiderik, telefono edo zaletasunik edo non ikasten dudana... Eta argazkirik edo bideorik ere ez dut bidaliko.



Erabili e-mail helbide bat baino gehiago

Jakina! Helbide bat nire gauzetarako izango dut, eta beste bat web orri batzuetan erregistratzeko eta lehiaketetan parte hartzeko.



Gaitzetsi SPAM-a eta ezusteko fitxategiak

Kontuz! Inoiz ez dut espero gabe iritsi zaidan e-mail bateko loturan sakatuko, interesgarria iruditu bazait ere. Eta sorpresaz ezagun baten fitxategia jasotzen baldin badut ez dut irekiko eta ez diot beste inori bidaliko aurretiaz zer den galdetu gabe.



Ez eman erraz zure e-mail helbidea


Ongi! Nire e-maila nire senitarteko eta konfiantzako lagunei soilik emango diet.

Eta nire adiskideen helbideak ere ez ditut emango horien baimenik gabe.



Isilean gorde zure gakoa

Argi dago. Nire gakoa edo pasahitza ez diot inori emango, ezta nire adiskideei ere. Hori da! Eta gainera noizean behin aldatuko dut.



Enbarazu egiten badizute, eska ezazu laguntza

Horixe egingo dut! Hizkera zakarraz tratatzen banaute eta gauza desatseginak esan edo bidaltzen baldin badizkidate, Internetetik atera eta nire gurasoei esango diet eta kito!



Ez sinetsi maukak eta opariak

Erne, beste azpijoko bat! Opariak edo eskaintza izugarriak diruditen gauzak eskaintzen badizkirate, ez dut fidatu behar. Lehenik familiarekin hitz egingo dut.



Konfiantza izan beti zure aita eta amarengan

Lehenengo araua. Ni bezalako agente batek beti egiten du. Nire gurasoekin zerbaitetaz ez hitz egiteko esaten didana, hori ez da nire laguna.



Ezezagunak ez dira zure lagunak

Ez naute nahastu behar. Interneten ezagutu dudan jendearekin harremanetan nago aspalditik baina ez dira benetako lagunak, haiek hala esan arren eta itxura hori eman arren.



Inoiz ez jarri hitzordurik norbaitekin biok bakarrik egoteko

Aja! honek garrantzitsua ematen du. Interneten baten bat ezagutu badut... berdin du nor den..., ez dut pertsona horrekin elkartu behar nire aita edo ama gabe.



Ai, ez... birusa!!! Arriskua!!



Eraso egiten dit!! Ihes egin behar dut hemendik... ez dakit lortu ahal izango dudana.



Ahhhh! Azkenean... berriz lortua genuen...



...Orain, Navegapolisen eskuratutako lorratz guztiak erabiliz, denok segurtasunez nabigatu dezakegu Interneten.

Behar bezala




Behar bezala

Tira, mesedez. Erne! Filmatzen hasiko gara.
Kamera, aurrera!

MONITOREAK LEIHOEKIKO IZAN BEHAR DUEN ORIENTAZIOA

Moztu!... Atzean dagoen leiho horrek isla egiten du.



Moztu!...ez...ez... aurrean duen leihoak itsutu egiten du.



Moztu!... oso ondo... honek balio du.



GELAREN KOLOREA

Moztu!... Hormetako kolore horrek neure onetik ateratzen nau. Beste bat!



Moztu!... Horrela hobeto. Askoz ere erlaxagarriagoa da. Hurrengoa!



ALTZARIEN AZALERA

Moztu!... isla gehiegi daude altzarietan... aldatu!



Moztu!... hori da... Distirarik gabeko azalera argiak...! Hurrengoa!



MAHAIA

Moztu!... ez... ez. Mahaiaren altuera egokia da, baina mahai zabalagoa behar dugu!...



Moztu!... ez... ez. Orain badugu nahikoa leku mahai gainean, baina non sartu bere hankak?



Moztu!...hori da... mahai zabal eta eroso bat! Jarrai dezagun!



ESERLEKU EGOKIA

Moztu!... Ez al duzue ikusten ez dela iristen?... Eserleku altuagoa, mesedez!




Moztu!... Beheratu eserlekua!...
Hortik erortzen bada...!



Moztu!... ez... ez... norbaitek
geldiarazi dezala... min hartuko du!
Bost gurpilak egonkortasun gehiago
izateko dira, ez abiadura handiagoa
lortzeko!



Moztu!...Horrela, oso ondo. Zuzen
egon behar du, bizkarra
bizkarraldean ondo ezarrita!



MONITOREAREN POSIZIOA

Moztu!... ezzzzzz... urrundu
monitorea... itsutu egingo da...



Moztu!... ez... ez... jarri monitorea posizio erosoago batean, mesedez. Aurrez aurre eta goiko ertza begien parean dagoela!



Moztu!... Hori bai dela zuzena... 40 eta 60 cm artean ondo dago. Hurrengoa.



PANTAILA EGOKIA

Moztu!... Biziegia... hau ez da beldurrezko film bat, eta ez da ezta zine-areto bat ere!



Moztu!... Ez!... Horrek atezain automatiko bat dirudi... Oso dotorea harro ibiltzeko, baina ez ikusmenarentzat.



Moztu!... Primeran. 17 hazbeteko pantaila bat nahikoa da. Doitu ondo distira eta kontrastea, eta kito. Hurrengo!



ARGIAK

Tira! Argiak, mesedez... Norbaitek ikusten al du zerbait? Argi gehiago, mesedez...



AAAGGG!!! Moztu!... Kiskali egingo gara!




Moztu!... Askoz ere hobeto. Itzalik gabe eta argi gehiegi gabe.



ESKUAK TEKLATUAN

Moztu!... Drakularen eskuak dirudite!
Berriro!



Moztu!... Oso ondo... eskuak
erlaxatuta, eskumuturrak behar
bezala ezarrita. Jarrai dezagun!



JARRERA EGOKIA

Moztu!... baina beno! Nork esan dizu
fakir baten moduan jartzeko? Hanka
horiek... uf!! Eta bizkarra... Ene
bada! Berriro! Berriro!




Moztu!... Bikain! Ez dugu errepikatuko...
baina beti horrela esertzea nahi dut:
bizkarra zuzen, ukondoak eta belaunak
angelu zuzenean, eta oinazpiak behar
bezala ezarrita...

**Positibatzer!! Gaurkoz amaitu
dugu.**

LEIHOAK - VENTANAS

ZINEKO ABENTURA // UNA AVENTURA DE CINE



LAGUNAK TXATEAN // AMISTADES EN EL CHAT

